

IRAGARKIA

Alkateak 2026ko otsailaren 13an emandako dekretu baten bitartez errotuluak, irudi korporatiboa eta webgunea euskaraz jartzen duten enpresei dirulaguntzak emateko oinarri arauak onartu dira eta honen bidez argitaratzen da:

ERROTULUAK, IRUDI KORPORATIBOA ETA WEBGUNEAK EUSKARAZ JARTZEN DUTEN ENPRESEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUAK

ZIOEN AZALPENAK

Bergarako Udalbatzak 2025eko urtarrilaren 27an egindako bileran onartu zuen Bergarako Udaleko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2025-2027. Bertan lerro estrategiko desberdinak jasotzen dira eta laugarrena da Euskararen Sustapena izenekoak.

Lerro horretarako 15. ekintza honakoa da:

- Hizkuntza paisaia euskaratzea.

Gauzak horrela, 2026ko urtealdirako onartutako udal aurrekontuetan, diru-izendapenak ezarri ditu enpresei laguntzeko.

Dirulaguntza horrekin lortu nahi da ekintzaren izenak dioen bezala hizkuntza paisaia euskaratzea.

Gauzak horrela, dirulaguntza-deialdia arautuko duten oinarri hauek prestatu dira.

ERROTULUAK, IRUDI KORPORATIBOA ETA WEBGUNEAK EUSKARAZ JARTZEN DUTEN ENPRESEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUAK

1.- XEDEA

Deialdi honen xedea da 2026. urtean bere egoitzetako errotuluak, irudi korporatiboa edo webgunea euskara hutsean edo kasu batzuetan ele bietan jartzen dituzten enpresei dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea.

2.- BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Oinarri-arau hauen bidez arautzen diren dirulaguntzak eskatu ditzakete establezimenduaren kokapen fisikoa eta egoitza fiskala Bergaran daukaten merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu enpresek; baita, nahiz eta egoitza fiskala Bergaran ez izan, Bergaran dauden lokaletan aipatu diren jarduera burutzen dituztenek.

Eragin hauetarako ulertu da zerbitzu enpresa dela herritarrei zuzenean zerbitzu bat ematen diona (adibidez, ile-apaindegia).

Dena den, programa honen aplikazio eremutik kanpo daude eta, beraz, dirulaguntza jasotzeko aukerarik ez dute izango honako hauek:

- a) Helburua euskara normalizatzea duten entitateak, hau da, euskara elkarteak, euskaltegiak, ikastolak, eta entitate publikoak.
- b) 50 langiletik gorako enpresa edo entitate handiak.
- c) Aurreko hizkian aipatzen diren enpresa edo entitateenak diren enpresak, haien kapital soziala %50etik gorakoa denean.

Gainera, dirulaguntza eskuratzeko eskatzaileak honako baldintzak bete beharko ditu:

- Ogasunekiko betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean egotea.
- Bergarako Udalarekin inongo motatako zorrik ez izatea eta betebehar fiskaletan, zergatan eta zergaz aparte tasetan eta prezio publikoen ordainetan egunean egotea. Bergarako Udalak ofizioz egiaztatuko du eskatzailea Bergarako Udalarekin egunean dagoela.
- Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. zatiek adierazitako kausaren baten pean ez egotea.

Ez dira Bergarako Udalaren dirulaguntzen onuradun izango sexuaren aldetik edo 1/2023 Legegintzako Dekretuak (martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena) 3-1 artikuluan jasotako diskriminazio anizkoitzeko faktoreen aldetik diskriminatzaileak diren jarduerak egiten dituzten pertsona fisiko edo juridikoak. Era berean, ez dira onuradun izango sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio-zehapena edo zehapen penala jaso dutenak ere, dagokion zehapenean ezarritako aldian.

Ezin izango dira ere onuradun izan honako egoeratakoren batean aurkitzen diren pertsona fisiko edo juridikoek:

- a) Epai irmoz zigorturik daudenak dirulaguntzak jasotzeko eskubiderik ez izatera, 38/2003 Legearen, Tratu Berdintasunari eta Diskriminaziorik Ezari buruzko uztailaren 12ko 15/2022 Legearen, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren edo aplikagarri den beste zeinahi arauen arabera.
- b) Indarreko legeriak botere publikoei dirulaguntzak ematea galarazten dien edozein inguruabarren pean daudenak.

Bestalde, diruz laguntzen den jarduerak honako baldintzak bete beharko ditu:

- Edozein kasutan eta kasu guztietarako:
 - a) Testua euskaraz zuzen idatzita egongo da.
 - b) Dirulaguntza jaso behar duen jarduera 2026an egindakoa izango da.
- Errotuluaren kasuan gainera:
 - a) Ez edukitzea pertsonaren izen eta deitura edo entitatearen izen berezia bakarrik, kasu horretan ez baita emango ezelako dirulaguntzarik.
 - b) Euskara hutsez idatzitako errotulua izatea.
 - c) Errotulua jartzeko hirigintza baimena izatea. Udalak ofizioz egiaztatuko du.
- Irudi korporatiboaren kasuan gainera:
 - a) Ez edukitzea pertsonaren izen eta deitura edo entitatearen izen berezia bakarrik, kasu horretan ez baita emango ezelako dirulaguntzarik.
 - b) Testua euskara hutsez egotea edo, irudi korporatiboa osatzen duten elementuetako

batzuen kasuan, euskaraz eta erdaraz.

– Webgunearen kasuan gainera:

- a) Webgunearen eduki guztiak euskaraz egotea. Horrez gain, webgunea beste hizkuntza batean/batzuetan ere egon daiteke.
- a) Webgunearen eduki guztietan, hitzezkoetan zein irudi bidezkoetan, euskarazkoetan zein gaztelaniazkoetan, hizkuntzaren erabilera bateratzailea egitea, hizkera sexista, homofobia eta xenofobia baztertuz.
- b) Testua zuzena eta kalitatezkoa izan behar da.
- c) Webgunea erabat osatuta egotea eskaria egiten den unean.

3.- FINANTZIAZIOA

Bergarako Udalak 3.000 euro bideratuko ditu 2026ko aurrekontuaren kontura dirulaguntza hauetara, 1 3350.481.335.20.01.2026 (465) partidatik.

4.- DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Entitate bakoitzari kontzeptu bakoitzeko behin bakarrik emango zaio dirulaguntza. Eman beharreko dirulaguntzak kalkulatzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

4.1. Errotuluaren kasuan.

Errotulua euskaraz hutsez dagoenean, dirulaguntza kostuaren %50a izango da eta gehienez ere 500 eurokoa.

4.2. Irudi korporatiboaren kasuan.

Programa honetan xedatzen diren dirulaguntzak emateko, honako hauek irudi korporatiboaren elementutzat joko ditu Udalak:

- Gutun-azalak
- Idazpurua daramaten orriak.
- Bisita-txartelak.
- Entitatea identifikatzeko zigilua.
- Albarana, fakturak...
- Poltsak
- Ibilgailuen errotulazioa.

Entitate bakoitzaren irudi korporatiboa osatzen duten elementuak osotasunean hartuko dira kontuan dirulaguntza banatzerako orduan, ez da elementu bakarra euskaratzeagatik dirulaguntzarik emango. Irudi korporatiboa euskara hutsez bada, dirulaguntza kostuaren %50 izango da, eta gehienez ere 400 eurokoa.

Albaranak/fakturak eta ibilgailuetako errotulazioa euskaraz eta erdaraz badaude eta irudi korporatiboaren gainontzeko elementuak euskaraz, dirulaguntza kostuaren %25 izango da, eta gehienez ere 200 eurokoa.

4.3. Webgunearen kasuan



Webgunea euskara hutsean jarritz gero, dirulaguntza kostuaren %50 izango da, eta gehienez ere 500 eurokoa.

Webgunea ele bietakoa edo eleaniztuna bada, dirulaguntza kostuaren %30 izango da, eta gehienez ere 300 euro.

5.- IZAPIDETZEAZ ARDURATZEN DEN ADMINISTRAZIO-UNITATEA

Euskara Zerbitzua.

6.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO MODUA

Interesatuak laguntza-eskaera Udaleko Erregistro Elektronikoko Orokorrean aurkeztu beharko du, udalak horretarako propio sortutako eskaera-inprimakia(k) erabilita. Ez da beste dokumenturik onartuko.

Eskaera aurkezteak esan nahi du eskatzaileak oinarri hauetan ezarritako baldintzak bere horretan onartzen dituela.

7.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

Dirulaguntza hau eskatzeko ez da egongo eperik; beraz, dirulaguntza hau edozein unetan eskatu ahal izango da deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrekontua agortu arte edo 2026ko abenduaren 31ra arte. Dirulaguntza agortuko balitz, horren berri emango da webgunean dirulaguntzen atalean argitaratutako iragarki baten bitartez.

Nahiz eta 2026an egindako ekintzen eskaerak abenduaren 31 baino lehenago aurkeztu behar diren, dirulaguntzaren xede den ekintza azaroaren 1etik abenduaren 31ra bitartean egiten denean fakturak aurkezteko epea 2027ko urtarrilaren 31ra artekoa izango da. Dena den faktura 2026koa izan beharko da.

8.- ESKAERA EGITEKO AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Dirulaguntza eskaera egiteko honako agiriak aurkeztu beharko dira:

- Edozein kasutan eta kasu guztietarako:
 - a) Dirulaguntza eskatzeko Udalak prestatutako inprimakia behar bezala beteta eta enpresaren ordezkari legalak sinatuta.
 - b) Eskaera beste pertsona baten izenean egiten bada, F0136 inprimakia
 - c) Eskaera egiten duen pertsona fisikoaren NANA.
 - d) Eskatzailea pertsona fisikoa bada, NANA. Eskatzailea pertsona juridikoa bada: eratze- edo aldaketa-eskritura (merkataritza-erregistroko idazpenaren arabera) eta identifikazio fiskaleko zenbakia (kopiak), eta enpresaren izenean eskaera egiten duen pertsona fisikoaren aldeko botere notarialaren kopia.
 - e) Gizarte Segurantzaren enpresaren eta langileen altaren agiriak.
 - f) Egindako gastuen fakturak.
- Errotuluaren kasuan gainera:

- a) Errotuluaren testua jasotzen duen agiria edo argazkia.
- Irudi korporatiboaren kasuan:
 - a) Entitateak egin edo berritutako elementu bakoitzaren ale bat.
- Webgunearen kasuan:
 - a) Webgunearen helbidea.

Jakinarazten da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28. artikuluan ezarritakoaren arabera, interesdunek eskubidea dutela dokumenturik ez aurkezteko honako egoera hauetakoren bat gertatzen denean:

a) Dagoeneko korporazioaren esku egotea; kasu horretan, ofizioz sartu ahal izango dira, baldin eta eskatzaileak eskabidean honako alderdi hauek adierazten baditu, eta emakida-prozeduraren instrukzioaz arduratzen den organoak egiaztatu beharko ditu:

- 1) Zein egunetan eta zein organo edo bulegotan aurkeztu edo, hala badagokio, eman ziren.
- 2) Aurkezpena eragin zuen prozeduraren izendapena. Diru-laguntzen deialdia denean, argitalpenaren epigrafea eta urtea zehaztuko dira.

Administrazioaren esku dauden datu eta dokumentuek indarraldia galduko dute, bai baliozkoak ziren aldia amaitu delako, bai prozeduran aurkeztu zirenetik bost urte baino gehiago igaro direlako. Nolanahi ere, udalak interesdunari berriro aurkezteko eskatu ahal izango dio, ebazteko beharrezkoa den edozein alderdi behar bezala egiaztatu gabe gelditu bada.

b) Beste edozein administrazio eginak izatea. Kasu horretan, Bergarako Udaleko sail eskudunak zuzenean kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar dituen datuak eta/edo dokumentuak, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu arrazoiak emanez.

Baldintzak edo betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko, Bergarako Udalak honako kontsulta hauek egingo dizkie beste administrazio batzuei:

- Foru Ogasunak:
 - . Zerga-betebeharrak egunean izatea.
- Gizarte Segurantzak:
 - . Gizarte Segurantzako betebeharretan egunean egotea.

Interesdunak era arrazoituan bere datuak kontsultatzearen aurka egiten badu, dirulaguntza izapidetu ahal izateko behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko du. Hala badagokio, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Dagokion Foru Ogasunaren ziurtagiria, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak.

Hala ere, dokumentua eskuratzea materialki ezinezkoa den kasuetan, eskatzaileari eskatu ahal izango zaio dokumentua aurkezteko, edo, bestela, dokumentu horren bidez egiaztatutako betekizunak beste bide batzuen bidez egiaztatzeko.

Ez da beste dokumentazio-motarik onartuko.

9.- ERABAKIA

Eskaera aurkeztu ondoren, Udaleko Euskara Zerbitzuak aztertuko du, eta agiriren bat falta bada, 10 eguneko epea emango da hura aurkezteko.

Epea bukatu, eta agiririk aurkeztu ez bada, interesatuak bere eskaeran atzera egin duela ulertuko da eta eskaera artxibatu egingo da.

Azkenik, Departamentuak txosten teknikoa egin ondoren, Herritarren Udal Batzorde Informatzaileak dirulaguntzak emateko proposamena egingo dio Alkateari erabakia har dezan.

Erabakia interesatuari jakinaraziko zaio eta, halaber, emandako dirulaguntzen informazioa publiko egingo da.

Justifikatu ondoren, dirulaguntza ordainketa bakar baten bidez egingo da, dirulaguntza ematea erabaki eta hilabeteko epean.

Udalak, Euskara Zerbitzuaren bitartez, beharrezko deritzon informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du erabaki-proposamena formulatu aurretik.

10.- ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Onuradunaren betebeharrak dira:

- a) Dirulaguntzaren arrazoi diren jarduerak egin edo/eta helburuak betetzea.
- b) Dirulaguntzaren emakida edo erabilpenerako baldintzak, jarduerak eta helburuak bete direla Bergarako Udalaren aurrean justifikatzea.
- c) Udalak egin beharreko egiaztapen jarduketan pean jartzea.
- d) Bergarako Udalari berak lagundutako jarduera berberengatik jasotako beste dirulaguntzen berri ematea. Horren berri jakin bezain laster egin beharko da komunikazio hau eta, edozein kasutan, Udaletik jasotako fondoan erabilera justifikatu aurretik.
- e) Jasotako fondoan erabilerari buruzko egiaztagiriak gutxienez sei urtez gordetzea.
- f) Jasotako dirulaguntza itzultzea, horretarako arrazoiaren bat izango balitz.
- g) Ogasunekiko betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean egotea.
- h) Bergarako Udalarekin inongo motatako zorrik ez izatea eta betebehar fiskaletan, zergatan eta zergaz aparte tasetan eta prezio publikoen ordainetan egunean egotea.
- i) Errotulua jartzeko bada dirulaguntza eskaera, udalaren baimena izatea eta baimen horretan jasotako xedapenak betetzea.

11.- DIRU-LAGUNTZA ORDAINTZEKO MODUA

Udalak erabakia hartzen denetik kontatzen hasita, hilabete bateko epean dirulaguntzaren %100a ordainduko du.

12.- DIRULAGUNTZEN KONKURRENTZIA

Udalak emandako dirulaguntza bateragarria da helburu berberengatik jasotako beste edozein dirulaguntzarekin.

Hala ere, diru-laguntza ezin izango da izan, beste dirulaguntza batzuekin batera zein bera bakarrik, lagundutako jardueraren kostua gainditzeko bestekoa.

13.- DIRULAGUNTZA ALDATZEA

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzen aldaketek, eta, edozein kasutan, beste entitate publiko edo pribatu batzuetatik konkurrentzian jasotako laguntzek, emakidaren erabakia aldatzea ekar dezakete.

14.- DIRULAGUNTZA EZEZTATZEA

Dirulaguntza berrikusteko eta, hala egokituz gero, ezeztatu eta jasotako dirulaguntza itzultzeko arrazoi izango dira:

- a) Diru-laguntza beharrezko baldintzak bete gabe jaso izana.
- b) Diru-laguntzaren helburua, osotasunean edo partzialki, ez betetzea.
- c) Diru-laguntzari eman zaion erabilera zuritzeko derrigortasuna ez betetzea edo behar den bezala ez betetzea.
- d) Finantzen kontrol- eta frogatze-jarduerak oztopatzea, ezetza ematea, desenkusatzeko edo erresistentzia jartzea; agiriak kontserbatzeko eta kontabilitate eta erregistratze aldetik dituzten betebeharrak ez betetzea; horien ondorioz emandako diru-laguntza zertan erabili den ziurtatzea oztopatzen bada, helburua betetzen ez bada edo helburu berarentzako bestelako diru-laguntza, diru-sarrera edo baliabideak baldin badaude.
- e) Oinarri hauetan diru-laguntzaren onuradunei ezarritako betebeharrak ez betetzea.

Itzuli beharreko diru-kopuruak eskubide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira.

15.- DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorra aplikatuz, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legearen Zortzigarren Xedapen Gehigarria aplikatuz eta, oro har, 39/2015 Legearen 28. artikuluan jasotako aurreikuspena aplikatuz, dirulaguntza hauek kudeatzeko ez da beharrezkoa izango interesdunaren baimena, eta Udalak bere eskumenak erabiliz datuen zehaztasuna egiaztatzeko behar beste egiaztapen egin ahal izango du, bai eta bere esku dauden edo beste edozein administrazio egin dituen dokumentuak kontsultatu eta eskuratu ere.

Diru-laguntzaren eskaera aurkeztearekin batera, entitate eskatzaileak ados dagoela adierazten du eta berariaz adierazten du deialdian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela eta deialdiko baldintza guztiak onartzen dituela.

Halaber, adierazten du eskabidean jasotako datu pertsonalak bere baimenarekin jasotzen direla, eta onartzen duela. Datu horiek modu automatizatuan tratatu behar dira, eta berariaz baimentzen du datu horien erabilera udal-kudeaketara soilik mugatzea, eta datu horiek laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie beste administrazio publiko batzuei eta haien erakundeei, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan aurreikusitako kasuetan. Eta eskubide digitalen bermea, eta, hartan aurreikusten ez



denerako, Datu Pertsonalak Babesteko Erregelamendu Orokorra (2016/679 EB), 2016ko apirilaren 27koa, 6.1.e artikuluan jasotakoarekin bat etorriz.

16.- OINARRI HAUEN INTERPRETAZIOA

Oinarri hauen interpretazio eta garapenean sor daitezkeen zalantzak Alkateak erabakiko ditu.

17.- ARAUDI APLIKAGARRIA

Oinarri hauetan espreski zehaztuta ez dagoenean, azaroaren 17ko 38/2003 legea, dirulaguntzei buruzkoa, lege hori garatzen duen erregelamendua, uztailaren 22ko 887/2006 Errege Dekretuaren bitartez onartua, Bergarako udaleko dirulaguntzen ordenantza orokorra eta udal aurrekontuko araua aplikatuko dira.

18.- OINARRIEN AURKAKO ERREKURTSOAK

Oinarri-arau hauek onartzeko akordioaren aurka, zeinak administrazio bidea amaitzen duen, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsoren aurretik eta hilabeteko epean; edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da zuzenean Donostiako Administrazioarekiko Auzi Epaitegian, bi hilabeteko epean. Aipatutako bi epeak oinarri-arau hauek deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita zenbatuko dira.

Bergara, 2026ko otsailaren 19a

Alkateak